

STEE-EILAS



STEE-EILAS EGIBIDEko hauteskunde sindikaletan garaile

STEE-EILAS sindikatuak irabazi zuen atzo, ekainak 5, EGIBIDEn (Arabako enpresarik handienetarikoa, 450en bat langileekin) izandako hauteskunde sindikaletan. Tekniko eta administratiboan kolektiboan (plantilaren %93a) sindikatu honek 5 ordezkari lortu zituen, botoen %41,3rekin; 4 ordezkari lortu zituen CCOOek, botoen % 30,2rekin eta 3 ordezkari ELAk, botoen % 28,4rekin. Espezialistetan ordezkari bat lortu zuen CCOOek.

Botoetan irabazteaz gain STEE-EILAS izan da Enpresa Batzorde berrian delegatu kopurua handituko duen sindikatu bakarra (lehen baino ordezkari bat gehiago), izan ere CCOOk eta ELAk hiruna ordezkari galdu baitute.

Emaitza hau garrantzia handikoa da EGIBIDE irakaskuntza pribatuko gatazkan signifikatu delako, 2013-14 ikasturtean zehar izandako 6 greba egunetan jarraipen handia izan duelako plantilaren aldetik. STEE-EILASEk lortu du, CCOO eta ELAekin elkarlanean, EGIBIDE sektoreko langileek bere hitzarmenaren berreskurapenaren alde daramaten borrokan erreferentzia bihurtzea. Orain botoek berrestu dute gure lan ildoak.

EGIBIDE, Kristau Eskola paronaleko ikastetxea da, Diocesanasek eta Jesus Obrerok bat-egitearen ondorioz 2012ko irailean sortua. Gaur EAEko -eta seguruenez Estatu mailako- ikastetxerik handiena da, 7.000 ikasle baino gehiago eta 450en bat langile baititu.

Gasteiz, 2014ko ekainak 5